



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO ABUZTUAREN 11N  
EGUERDIKO 13:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkateordea:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta

**Zinegotziak:** Ainhoa Arrozpide Landa eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**1.- 2022KO UZTAILAREN 21EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2022ko uztailaren 21eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- BOOKTEGI KULTUR ELKARTEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN  
INSKRIBATZEA.**

Esp.zk.: ID.17/2022-0102  
2022IEUE0001

**Ikusita**

Aritz Brantonek, Booktegi Kultur Elkartearen ordezkari gisa, aipatutako elkartearen Udako Erregistroan inskribatzeko eskabidea egin du 2022/06/14an.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu du.

Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariak aipatutako elkartearen irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du.

**Kontuan hartuta**

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).
- Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du aho batez:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

**Lehena:** Booktegi Kultur Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarteen udal erregistroan inskribatzea.

**Bigarrena:** Erabaki honen berri interesatuari eta kontu-hartzaileari ematea.

### **3.- MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU ENPRESARI, HAASETAKO A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUETAN IGOGAILUA ETA AUTOBUS GELTOKI BERRIA EGITEKO BEHARREZKO DIREN AURRELANAK BURUTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0307

MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan igogailua eta autobus geltoki berria egiteko beharrazko diren aurrelanen memoria aurkeztearen batera, lanok burutzeko udal baimena eskatu du.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko uztailaren 22an honako txostena eman du:

GAIA	A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuan igogailua eta autobus geltoki berria eraikitzeko aurretiko lanak egiteko udal-baimena.
ESKATZAILEA:	Gerardo Ramon Amunarriz Perez
ESKAERA DATA:	2022/VII/01
ERREG. ZBKIA:	HZ.04/2022-0307
ESP. ZBKIA:	
PEM:	<b>148.178,64 euro</b>
HKA (EGR)	<b>EZ DA ZEHAZTEN</b>

#### **A. AURREKARIAK**

- A.1. 2022ko uztailaren 1ean, Gerardo Ramon Amunarriz Perez, Matia Servicios Sociales SL enpresaren izenean, A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan igogailua eta autobus geltokirako aurrelanen memoria aurkeztu du.

#### **B. TXOSTENA**

- B.1. **KOKAPENA:** Partzela, indarrean dagoen Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, Usurbilgo A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) izeneko hiri-lurzoruaren eremuetan dago.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

- B.2. Gaur egun, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual bat tramitatzen ari da, bi eremu horiek eremu bakarrean arautzeko.
- B.3. **ESKU-HARTZEA:** Aurkeztutako informazioan zehazten denez, igogailua eta autobus geltokia eraikitzeko lanak egin aurretik, beharrezkoa da lurzatian zenbait lan aurrera eramatea.

Aurkeztutako memorian ezartzen den bezala:

*El objeto de la presente documentación es presentar los trabajos previos que se van a realizar en el ámbito del proyecto de las obras necesarias para la construcción de 2 ascensores y 2 paradas de autobús en el Área de Planeamiento A.96/97 Miravalle, en el término municipal de Usurbil, de forma que se permita obtener una valoración real del presupuesto. (...)*

*Debido a que las obras de urbanización que se están llevando a cabo en el ámbito, se va a crear una barrera de acceso a la zona donde se van a ubicar los ascensores, ya que se va a construir un muro sobre el que irá el futuro aparcamiento. Antes de construir dicho muro, para no tener que cortar la N-634 para meter maquinaria y ejecutar las excavaciones y hormigonados necesarios para los ascensores se plantea realizar unos trabajos previos en la aldera.*

N-634 errepidean ahalik eta eragin gutxien izateko, beharrezkoa da orain lanak egitea, goiko sarbidea itxi baino lehen. Udaletxetik ontzat jotzen da lan horiek aurreratzea, hala ere, proiektua osorik ezagutzen ez denez, ezin da konprobatu

Beraz, esku-hartzea honako lan hauek egitea proposatzen du:

- **Lur mugimenduak** egitea.
- **Euste-mikropiloteen pantaila** egitea.
- **Goiko igogailuaren hobia** hondeatzea.
- **Hormigoizko hormak** igogailuaren egiturarako.

Honako hau da memorian egiten den lanen deskribapena:

*Se propone la realización de una pantalla de micropilotes que contenga el terreno en la parte inferior de la ladera, donde en un futuro se construirán los muros traseros de la parada de autobús. Así en un futuro de podrá realizar la excavación del terreno junto a la N-634 para encajar la parada de autobús en menos tiempo.*

*También se realizará la excavación del foso del ascensor superior y se levantarán los muros de hormigón que serán la base de la estructura metálica del ascensor y el muro que contendrá la futura plaza intermedia de acceso al local del Ayuntamiento.*

- B.4. **ZUHAITZAK:** Aurkeztutako memorian zera ezartzen da zuhaitzei buruz:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

*Solo se retirarán aquellos árboles que se marcan en el proyecto. No se permitirá la retirada de ningún árbol por el mero hecho de que la obra se puede ejecutar mejor o más cómodamente sin su presencia.*

Hala ere, proiektuan ez dira markatu zeintzuk diren botako diren zuhaitzak.

Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera, baimena beharko da, besteak beste, ondorengo ekintzak egiteko:

*Zuhaitz aldaketa, mozketa eta suebakien zabalpena.*

**Baimen honen bidez ez da baimentzen inolako zuhaitza moztea.** Horretarako baimena espresuki eskatu beharko da. Zuhaitzak mozten baldin badira lizentziaren aurka izango da.

**B.5. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:** eskaera orriarekin batera, aurkeztutako dokumentazioa honako hau da:

- Memoria, Enrike Etxeberria, Aritz Berastegui eta Josu Laguardia arkitektoek izenpetu dutena, eta ikus-onetsi gabe dagoena.

Memoria osatzen duten dokumentuak honakoak dira:

- Memoria.
- Planoak.
- Aurrekontua.

**B.6. LIZENTZIA BEHARRA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. artikuluan ezarritakoaren arabera, hirigintza-lizentzia behar dute, besteak beste, ekintza hauek:

- *Las obras de construcción, edificación e implantación de instalaciones de toda clase de nueva planta.*
- *Los movimientos de tierra y las obras de desmonte y explanación en cualquier clase de suelo.*
- *Las obras de urbanización complementarias a la edificación.*
- *Las instalaciones que se ubiquen o afecten al subsuelo.*

**B.7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:** 2/2006 Legearen 210. artikuluan ezarritakoaren arabera, hirigintzako lizentzia emateko prozeduraren hasiera, instrukzioa eta ebazpena kasuan kasuko udal ordenantzek arautuko dituzte. Halaber, eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion proiektua (ikus-onetsia, beharrezkoa bada).
- Legeriak eskatzen dituen baimen konkurrenteak.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

- Dagokion kontzesioa (beharrezkoa denean).

**Interesatuak ez du beharrezkoa den dokumentazioa guztia aurkeztu, baimen konkurrenteak falta dira.**

- B.8. **AURREKONTUA:** aurkeztutako aurrekontuek ezartzen dute egin beharreko lanek 148.178,64 € euroko kostua izango dutela guztira. Zenbateko horrek ez du BEZa kontuan hartzen.
- B.9. **EREMU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Memorian ez da esaten eremu publikoa okupatzea beharrezkoa izango denik. Beharrezkoa izatekotan dagokion udal baimena eskatu eta dagozkio tasak ordaindu beharko dira.
- B.10. **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenak, bereizketa hau ezartzen du obra txikien eta handien artean:
- *Obra txikia: etxe partikular baten, denda baten, bulego baten edo zerbitzuen sektoreko higiezin baten eraikuntza- edo eraispén-lana, (...).*
  - *Obra handia: aurreko ataleko definizioan sartzen ez diren eraikuntza- eta eraispén-lanak dira.*

Kasu honetan Obra Handi baten lizentzia behar duen obra denez, behar den lizentzia eskuratzeko, eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko **fidantza eratzea** eskatuko da.


Fidantza horren zenbatekoa kalkulatzeko, 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio:

*Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da fidantzaren zenbatekoaren kalkulua -aurreko artikuluko a) letran aipatzen den azterketan zehaztuko da kostu hori-, eta haren % 120 izango da.*

Kasu horretan, proiektuan ezarritako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa-kostuaren % 120 izango da fidantza.

Kasu honetan ez da aurkeztu hondakinen kudeaketari dagokion partida; beraz, obrekin hasteko beharrezkoa izango da hondakinen kudeaketari dagokion hondakinen kudeaketari buruzko azterketa aurkeztu beharko da.

- B.11. **ERREPIDEAK:** Lurzatiak N-634 muga du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarearen Katalogoan sartutako errepidea.



Hortaz, Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko Foru Arauan zedarritzen dena kontuan hartu beharko da.

N-634 Lehentasunezko Sarearen (Sare Gorria) parte da. Foru Arauak halako errepideetarako, autobide edo autobiak ez direnean, alde bakoitzean 50 metroko babes eremua ezartzen du. Halaber, debekatu egiten da errepideen zabalgunearen ertzetik edo kanpoko lerrotik 8 metro baino gutxiagora eraikitzea.

Foru Arauaren 77. artikuluan zera ezartzen da:

*Administrazio baimena beharko da mota guztietako jarduera, lan eta obrak egiteko, bai errepide eta bideetan, bai jabari publikoko eremuetan, bai haien babesguneetan.*

Babes-eremuaren barruan, besteak beste, jarduera hauek egiteko baimena lortu behar da:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

- *Indusketak eta lurketak egiteko.*
- *Mota guztietako instalaziotarako, zerbitzu publikokoak izan ala ez, lurrazpikoak eta airekoak barne direla.*

Baimenak emateko eskumena, betiere, errepide edo bidearen administrazio titularri dagokio (kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiari), Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide eta Bideen Foru Arauaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Foru Aldundiaren baimena lortzeko prozedura araudi horren 80. artikuluan ezartzen da.

Foru Arauak ezartzen duen bezala, interesdunak **Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentua baimena eskatu beharko du** N-634 foru errepidearen ukipen eremuaren barruan egin lanak egiteko.

**Lanak hasi aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentua baimena aurkeztu beharko da** Usurbilgo Udaletxean.

B.12. **BESTE BALDINTZA BATZUK:** obra egiterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak bere txostenean ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.

B.13. **EPEAK:** obra ondorengo epeak kontuan hartu beharko ditu:

- Obra hasteko epea: hilabete.
- Obra amaitzeko epea: 3 hilabete.
- Obra geldirik egoteko epea: 2 aste.

### C. ONDORIOAK

C.1. Teknikari honek, alderdi juridikoak salbu, aurkeztutako proiektuak txosten honetako B atalean aztertutako indarreko udal planeamenduan ezarritako baldintzak betetzen ditu; beraz, **bidezkoa da honako hau ematea:**

- **A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan igogailua eta autobus geltokia egiteko beharrezkoak diren aurre-lanak egiteko obra baimena.**

C.2. Baimena proiektuaz aparte ematen da. Gero, proiektuarekin kontraesanik izanez gero edo aurkeztutako proiektuak Udalak onesteko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, Udalak ez du bere gain hartuko sor daitezkeen gailuzko erantzukizunik.

Gainera, Udalak behar diren baldintza guztiak ezartzen ahalko ditu, bereziki hirigintzako araudia betetzeko direnak eta hiri ingurunean irisgarritasun baldintzak.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

- C.3. Obrak hasi aurretik, obrari dagozkion **udal-tasak ordaindu** beharko dira.
- C.4. Obrak hasi aurretik, **hondakinen kudeaketari dagokion fidantza** ezarri behar da. Horretarako, beharrezkoa izango da Hondakinen Kudeaketa-Azterlana aurkeztea.
- C.5. **Lanak hasi aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentua baimena aurkeztu** beharko da.
- C.6. **Baimen honen bidez ez da baimentzen inolako zuhaitza moztea.** Horretarako baimena espresuki eskatu beharko da. Zuhaitzak mozten baldin badira lizentziaren aurka izango da.
- C.7. **Lehenbailehen igogailu eta autobus geltokiko proiektua aurkeztu beharko da,** dagokion elkargo-ofizialaren ikus-oniritziarekin.
- C.8. Txosten honen D atalean ezarritako baldintzak bete beharko dira, baita beste baimen konkurrenteetan ezarritako baldintzak ere.

#### D. BALDINTZAK TEKNIKOAK

- D.1. Egindako obraren balioari dagozkion onurak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarritz gero.
- D.2. Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatutako eta baimendutako aldaketekin.
- D.3. Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- D.4. Horrez gain, hauze gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezkari erantzulea.
- D.5. Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- D.6. Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenetik kanpo dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- D.7. Obra batean paratu behar den edozein aldazio, bai eraikinaren kanpoaldean





Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

bai barnean, aldez aurretik lizentzia edo baimena eskatu beharko da. Baimen horrek ez du zerikusirik oraingo obra lizentziarekin.

D.8. Eremu publikoan lanak egin edo erreminta ekipo bat (konpresorea, iraulkia, etab.) instalatu behar izanez gero. ), babes-hesia jartzeko baimena eskatu behar da (zehaztu da hori ez dela obra-lizentziarena bezalakoa), hesiaren hedadura eta neurriak adierazi behar dira, eta, eskabidearekin batera, oinplano-plano bat aurkeztu behar da, hesiaren kokalekua zehatz-mehatz deskribatzen duena.

**D.9. Epeei buruzko baldintzak:**

- Obra lizentzia emateko erabakia jakinarazten denetik, hilabeteko epean hasi beharko dira obrak.
- Obrak bukatzeko gehienezko epea 3 hilabetekoa izango da.
- Obra geldi egon ahal izango da, promotoreari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, gehienez, 2 astez.
- Lizentzia honetan jasotako epeak luzatzeko eskabide arrazoitua egin daiteke.

**D.10. Obrak egitean bete behar diren baldintzak:**

- Aplikagarria diren Baimen edo txosten bakoitzean jarritako baldintzak bete beharko dira.
- Jarduketa iragartzeko kartelak instalatu nahi izanez gero, aurretik beharrezko den baimena eskatu beharko da. Iragarkian agertzen diren testuek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute.
- Obren eremuko seinaleetan kontuan hartuko da Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzan jasotakoa.

**D.11. Obrak bukatutakoan bete behar diren baldintzak:**

Behin obrak bukatu ostean ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira:

- **Obra Amaierako Ziurtagiria**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obraren Azken Likidazioa**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obrako hondakinak behar bezala tratatu direla justifikatzen duten agiriak**, eraikuntza eta eraisteetako hondakinak sortu eta kudeatzea arautzen duen ekainaren 26ko 112/2016 Dekretuak ezarritakoaren arabera

Hori adierazten dut USURBILen, 2022ko uztailaren 22an



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

Carlos Arroita Martínez  
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetan igogailua eta autobus geltoki berria egiteko beharrazko diren aurrelanak burutzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**
  1. **Lanak hasi aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentua baimena aurkeztu** beharko da.
  2. Obrak hasi aurretik, **hondakinen kudeaketari dagokion fidantza** ezarri behar da. Horretarako, beharrezkoa izango da Hondakinen Kudeaketa-Azterlana aurkeztea.
  3. Plenoak 2020ko maiatzaren 28an hartutako erabakia baitan, obrari dagozkion **udal-tasak ordaindu** beharko dira.
- Baimena proiektuaz aparte ematen da. Gero, proiektuarekin kontraesanik izanez gero edo aurkeztutako proiektuak Udalak onesteko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, Udalak ez du bere gain hartuko sor daitezkeen gainkostuen erantzukizunik.

Gainera, Udalak behar diren baldintza guztiak ezartzen ahalko ditu, bereziki hirigintzako araudia betetzeko direnak eta hiri ingurunean irisgarritasun baldintzak.
- **Lehenbailehen igogailu eta autobus geltokiko proiektua aurkeztu beharko da**, dagokion elkargo-ofizialaren ikus-oniritziarekin.
- **Baimen honen bidez ez da baimentzen inolako zuhaitza moztea.** Horretarako baimena espresuki eskatu beharko da. Zuhaitzak mozten baldin badira lizentziaren aurka izango da.
- Egindako obraren balioari dagozkion onurak ordaindu egingo dira; baita hesia,



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

karga-igogailua, aldamioa edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarriz gero.

- Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatutako eta baimendutako aldaketekin.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezko erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagoen baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenetik kanpo dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Obra batean paratu behar den edozein aldamio, bai eraikinaren kanpoaldean bai barnean, aldezturik lizentzia edo baimena eskatu beharko da. Baimen horrek ez du zerikusirik oraingo obra lizentziarekin.
- Eremu publikoan lanak egin edo erreminta ekipo bat (konpresorea, iraulkia, etab.) instalatu behar izanez gero. ), babes-hesia jartzeko baimena eskatu behar da (zehaztu da hori ez dela obra-lizentziarena bezalakoa), hesiaren hedadura eta neurriak adierazi behar dira, eta, eskabidearekin batera, oinplano-plano bat aurkeztu behar da, hesiaren kokalekua zehatz-mehatz deskribatzen duena.
- **Epeei buruzko baldintzak:**
  - Obra lizentzia emateko erabakia jakinarazten denetik, hilabeteko epean hasi beharko dira obrak.
  - Obrak bukatzeko gehienezko epea 3 hilabetekoa izango da.
  - Obra gelditu egon ahal izango da, promotoreari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, gehienez, 2 astez.
  - Lizentzia honetan jasotako epeak luzatzeko eskabide arrazoitua egin daiteke.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

- **Obrak egitean bete behar diren baldintzak:**

- Aplikagarria diren Baimen edo txosten bakoitzean jarritako baldintzak bete beharko dira.
- Jarduketa iragartzeko kartelak instalatu nahi izanez gero, aurretik beharrezko den baimena eskatu beharko da. Iragakian agertzen diren testuek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute.
- Obren eremuko seinaleetan kontuan hartuko da Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzan jasotakoa.

- **Obrak bukatutakoan bete behar diren baldintzak:**

Behin obrak bukatu ostean ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira:

- **Obra Amaierako Ziurtagiria**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obraren Azken Likidazioa**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obrako hondakinak behar bezala tratatu direla justifikatzen duten agiriak**, eraikuntza eta eraisteetako hondakinak sortu eta kudeatzea arautzen duen ekainaren 26ko 112/2016 Dekretuak ezarritakoaren arabera

**BIGARRENA:** Obrak hasi aurretik, Plenoak 2020ko maiatzaren 28an hartutako erabakia baitan obrari dagozkion **udal-tasak ordaindu** beharko dira.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

#### **4.- INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA (2022JDIU0001).**

Esp.zk.: HZ.06/2022-0109  
2022-JDIU-0001

#### **Ikusita**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2022ko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Apatutako oinarriak 2022ko martxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 10 eskaera jaso ziren.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak 2022ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, zegokion



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

ebazpen proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2022ko ekainaren 29an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 123. zenbakian.

Jendaurreko epealdian hiru alegazio izan dira. Honakok hain zuzen:

	ERREGISTROA		ESPEDIENTE ZENBAKIA	INTERESATUA
	DATA	ZKIA		
01	2022-07-06	2925	2022-NDIU-0011	Añorga Manterola, Amaia
02	2022-07-08	3002	2022-NDIU-0010	Villafafila Eizaguirre, Iñigo
03	2022-07-08	3004	2022-NDIU-0010	Villafafila Eizaguirre, Iñigo

Aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, 2022ko uztailaren 20ean emandako txostenean, alegazioak honela erantzutea proposatu du:

	ALEGAZIOAREN ARRAZIOA	ERANTZUNA	PROPOSAMENA
01	Eskaera epe barruan aurkeztu duela dio eta aintzat hartzea eskatzen du	Eskaera epe barruan aurkeztu zuen eta aztertu zen. Zehaztutako bazterketa arrazoia ez da zuzena. Eskaera diru-sarrereren muga gainditzeagatik baztertu da	AINTZAT HARTZEA
02	Oinarrietan diru-sarrereren mugarik ez dela azaltzen eta beraz bere eskaera aztertu eta dirulaguntza onartzea eskatzen du	Dirulaguntzen oinarrietan, balorazio irizpideetan, diru-sarrereren baldintza zehazten da	BAZTERTZEA
03	1544 sarrera zenbakia duen eskaera Jose Villafafila Iglesias jaunaren izenean aurkeztu zela eta beraz eskaera hori aztertu eta dirulaguntza onartzea eskatzen du	1544 sarrera zenbakia duen eskaerari dagokionez, interesduna Iñigo Villafafilada eta beste pertsona baten izenean dirulaguntza aurkeztu izanaren ordezkari zuzenak ez da aurkeztu	BAZTERTZEA

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2020-22 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2020/01/30).
- Dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2022/03/08).
- 2022ko uztailaren 20ko teknikariaren txostena.

Guzti hau kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2022ko dirulaguntzen ebazpen proposamenari aurkeztutako alegazioei ondoko eran erantzutea ingurumen eta nekazaritza teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik:

	ERREGISTROA		INTERESATUA	ERANTZUNA
	DATA	ZKIA		
01	2022-07-06	2925	Añorga Manterola, Amaia	AINZAT HARTZEA
02	2022-07-08	3002	Villafafila Eizaguirre, Iñigo	BAZTERTZEA
03	2022-07-08	3004	Villafafila Eizaguirre, Iñigo	BAZTERTZEA

**BIGARRENA:** Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2022an ondoko dirulaguntza eskaera **baztertzea**:

ESKATZAILEA	ARRAZOIA
Manterola Aizpurua, M. Pilar	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Rezola Azurmendi, Jose Maria	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Rezola Mendikute, Arkaitz	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Usabiaga Carrera, Maider	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Aizpurua Aizpuru, Maria Iciar	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Salaberri Bulman, Maite	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Alcorta Machain, Josu	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Huegun Zapirain, Koldo	Ez da aintzat hartu, nekazaritzako egitasmoa delako
Villafafila Eizaguirre, Iñigo	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea
Añorga Manterola, Amaia	Oinarrietako baldintzak ez betetzea: diru-sarrerren muga gainditzea

**HIRUGARRENA:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

## 5.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA (2022NDIU0001).

Esp.zk.: HZ.06/2022-0110  
2022-NDIU-0001

### Ikusita

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 17ko datan, nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2022ko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2022ko martxoaren 8an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 11 eskaera jaso ziren.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak 2022ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, zegokion ebazpen proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2022ko ekainaren 29an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 123. zenbakian.

Jendaurreko epealdian alegazio bat izan da. Honakoa hain zuzen:

	ERREGISTROA		ESPEDIENTE ZENBAKIA	INTERESATUA
	DATA	ZKIA		
01	2022-07-08	3003	2022-NDIU-0012	Roldán Cantero, Gemma

Aurkeztutako alegazioa aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, 2022ko uztailaren 20an emandako txostenean, alegazioa baztertzea eta hartutako erabakia berrestea proposatu du.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2020-22 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2020/01/30).
- Dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2022/03/08).
- 2022ko uztailaren 20ko teknikariaren txostena.

Guizti hau kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Gemma Roldán Cantero anderearen ordezkartzan (Esp. Zenbakia: 2022-NDIU-0012) tartekatutako alegazioa baztertzea ingurumen eta nekazaritza teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

**BIGARRENA:** Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2022an ondoko dirulaguntzak onartzea:

Eskatzailea	Dirulaguntza
Portularrume Unanue, Arkaitz	2.000,00 €
Machain Arrozpide, Igor	1.576,47 €
Argote Bengoechea, Jon	832,25 €
Agirresarobe Arzallus, Jesus M	1.203,39 €
Arrospide Iraeta, Arantxa	2.000,00 €
Azconobieta Esnal, Joaquina	1.524,48 €
Zubimendi Urdampilleta, Joxe Mari	641,10 €
Ugarte Lizargarate, Jon	273,45 €
Arruti Ustoa, Miren Arantzazu	721,32 €
Huegun Zapirain, Koldo	2.000,00 €

**HIRUGARRENA:** Oinarrietako 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako dirulaguntzen %100a ordaintzeko agintzea kontu-hartzailetzari, 1-6200-481-412-00-03-2022 aurrekontu partidatik:

Eskatzailea	Dirulaguntza
Portularrume Unanue, Arkaitz	2.000,00 €
Machain Arrozpide, Igor	1.576,47 €
Argote Bengoechea, Jon	832,25 €
Agirresarobe Arzallus, Jesus M	1.203,39 €
Arrospide Iraeta, Arantxa	2.000,00 €
Azconobieta Esnal, Joaquina	1.524,48 €
Zubimendi Urdampilleta, Joxe Mari	641,10 €
Ugarte Lizargarate, Jon	273,45 €
Arruti Ustoa, Miren Arantzazu	721,32 €
Huegun Zapirain, Koldo	2.000,00 €

**LAUGARRENA:** Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2022an ondoko dirulaguntza eskaera baztertzea.

Eskatzailea	Arrazoia
-------------	----------





Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

Roldán Cantero, Gemma	Ustialekua ez dago Usurbilen
-----------------------	------------------------------

**BOSGARRENA:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1-6200-481-412-00-03-2022

**SEIGARRENA:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **6.- EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN-GUNEAN EGONALDIRAKO HASIZ HAZI DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA (2022PHAS0001).**

### **Ikusirik**

2022ko martxoaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Hasiz Hazi dirulaguntza, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako dirulaguntzaren oinarriak arautuz eta aurkezteko lehenengo epea, 2022ko maiatzaren 31 arte eta bigarrena berriz 2022ko irailaren 30 arte, emanez.

Dirulaguntza honen bitartez enpresa proiektu berri bat garatzen ari diren pertsoneri edo JEZ alta emanda egon eta lan egiteko leku bat behar duten pertsoneri urtebeteko egonaldia ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Lehenengo epean, hau da, maiatzaren 31 bitartean, **eskaera bat** jaso da.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2022ko uztailaren 6an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen Hasiz Hazi beka diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena 2022ko uztailaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2020/01/30).
- Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako diru-laguntzaren oinarriak (GAO, 2022/03/08).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/08/11

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Ekintzaileentzat Kabiene Elkarateak duen elkarlan-gunean egonaldiako 1089 € tako dirulaguntza ematea eskatzaileari.

**Bigarrena:** Ordainketa bi zatitan egingo da %80-a ebazpena ematen denean eta bigarrena %20-a memoria eta kabieneko egonaldiari dagokion faktura agiriak aurkeztu ondoren.

<b>Eskatzailea</b>	<b>NAN</b>	<b>ENPRESA PROIEKTUA</b>	<b>Hasierako ordainketa %80</b>	<b>Bukaerako ordainketa %20</b>
Enara Barrenetxea Génova	_____	Arkitektoa	871,20	217,80

**Hirugarrena:** Garapen ekonomiko dirulaguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.5000.481.241.00.03 (AD 1223/2022).

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuko da.

**Bosgarrena:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**Seigarrena:** Kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 13:50k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**